



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

Indarkeriarik gabeko eta errespetuan oinarritutako jaien aldeko udal manifestua

Ermuan izandako azken istiluen ondorioz, Udalak berretsi egin nahi du bizikidetzarekin, askatasunarekin eta espazio publikoko segurtasunarekin duen konpromiso irmoa. Gure jaiak ondare kolektiboa dira: belaunaldien arteko topaketarako, herri-kulturarako, alaitasun partekaturako eta elkarrekin bizitzeko une. Eta, hain zuzen ere, horregatik, ez dira onargarri indarkeria, larderia, abusu edo errespetu faltak.

Jai eta aisialdi guneetan, baita beste edozein esparrutan ere, gizarte gisa bermatu behar dugu pertsona guztiek beldurrik gabe gozatu ahal izango dutela, beren adinagatik, generoagatik, sexu orientazioagatik, identitateagatik, jatorriagatik, itxuragatik, janzteko moduagatik, ideiegatik edo, besterik gabe, kanean egoteagatik zalantzan, jazarrita edo mehatxatuta sentitu gabe.

Udal honek argi utzi nahi du indarkeria ez dela festaren parte. Inolako indarkeria: fisikoa, hitzezkoa, sexuala, sinbolikoa, eta abar. Ezta ere jazarpenak, umiliazioak edo taldeko erasoak. Ezta larderiak egindako lapurretak ere. "Ez da ezer gertatzen", "gaueko kontuak dira" eta "zerbait egingo zuen" esaldiak ezin ditugu normalizatu. Festak zentzua du soilik oinarritzko printzipio batean oinarritzen bada: giza duintasunarekiko errespetuan.

Era berean, Udalak Botere Judizialarekiko errespetua adierazten du, eta eskatzen du, dagozkion jarduketan esparruan, neurri egokiak har daitezela biktimek eta lekukoek bermeekin deklaratu eta prozeduretan parte hartu ahal izan dezaten, derrigortzerik eta larderiarik gabe, arreta berezia jarrita beren intimitatea babestean eta edozein biktimizazio modu prebenitzean.

Prebentzioak eta bizikidetzak ikuspegi integrala behar dute: hezkuntzakoa, komunitarioa, instituzionala eta operatiboa. Horregatik, Udalbatzak honako erabakiak hartu ditu:

Erabakiak

1. Udalak indarkeriarik gabeko jai eta aisialdi-guneekin duen konpromisoa adieraztea, errespetua, berdintasuna eta erantzun kidetasuna sustatuz.
2. Erasoak eta larderiak jokabideen aurkako mezua dituen udal kanpaina bultzatzea, arreta berezia jarritz indarkeria matxisten, LGBTIfobikoen, arrazisten eta gorrotozkoen prebentzioari, bai eta gazteen eta taldeen indarkeriari ere.
3. Jaietan prebentzio- eta laguntza-baliabideak indartzea, Berdintasuna, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Kultura eta Herriararen Segurtasuna koordinatuz.
4. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari koordinazio hobea eskatzea, gertakariak prebenitzeko eta erantzun eraginkorrak, proportzionalak eta pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituztenak bermatzeko.
5. Jarraipenerako eta ebaluaziorako gune bat sortzea, udalaren eta gizartearen parte-hartzearekin, protokoloak eta kanpainak hobetzeko.

6. Herritarrei, erakunde antolatzaileei, klubei, ostalaritzari eta gizarte-eragileei dei egitea errespetuaren kultura sustatzeko, indarkeria baztertzeko eta, hala dagokionean, laguntza-baliabideak aktibatzeke.

- Errespetuaren eta elkarrekiko zaintzaren kultura sustatzea espazio guztietan.
- Indarkeriazko, larderiazko edo diskriminaziozko edozein jokabide arbuiatzea eta geldiaraztea.
- Behar duenari laguntzea eta, hala dagokionean, arreta eta babeserako baliabideak aktibatzea.
- Guztion artean bizitzeko eta gozatzeko askatasuna pertsona guztientzat benetakoa izango den udalerrria eraikitzea.

Izan ere, festa bakarrik da festa, guztiona eta guztiontzat bada. Partekaturiko alaitasunak elkar zaintzea eskatzen du. Pertsona baten askatasuna beste baten beldurra hasten den lekuan amaitzen delako.

**Ermuan guztiontzako lekua dago. Geure burua eta elkar zaintzen dugu.
Ermuak argi eta ozen dio: gure jaietan errespetua oinarri. Beti!**